# Euskarazko hiztegia eta gramatika 2014rako osorik Interneten jarriko ditu EHUk

**Unibertsitateko Euskara Institutuak egingo duen gramatika hizkuntzaren entziklopedia izatea nahi dute**

NAGORE VEGA
Donostia



Pello Salaburu, Ibon Sarasola eta Patxi Goenaga proiektuaren zuzendariak, atzo. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak Sareko Euskal Gramatika eta Egungo Euskararen hiztegi osoa sarean jarriko ditu 2014. urtean. Hiztegiaren zenbait letra dagoeneko jarrita daude web orrian (*www.ehu.es/eeh*). Gramatika lantzen datorren hilean hasiko dira, eta lehenbailehen sarean jartzen ahaleginduko dira. Guztira, sei urteko beharra izango da, baina emaitzak lehenago ikusten hasiko dira erabiltzaileak.

Atzo eman zuten proiektuaren berri Pello Salaburu, Ibon Sarasola eta Patxi Goenaga EHUko katedradunek, Juan Ignacio Perez Iglesias errektorearekin batera. Salaburu, Sarasola eta Goenaga dira proiektuaren zuzendariak. Egitasmoa «guztiz originala» dela nabarmendu zuten, ez euskaraz eta ezta munduko beste inongo hizkuntzatan ere ez baitago gramatika eta horrelako hiztegi osorik sarean.

Sareko Euskal Gramatika, gramatika bat baino gehiago, hizkuntzari buruzko entziklopedia izatea nahi dute. Gramatika guztiek bezala, fonetika, fonologia, morfologia eta sintaxiari buruzko deskribapenak jasoko ditu. Horrez gain, lexikografia, hizkuntzaren historia, jabekuntza eta prozesamendua, euskararen egoera eta erabilera datuak ere bilduko ditu. Sarean kontsultatzeko diseinatutako gramatika izanik, testuei grabazioak, mapak eta argazkiak erantsiko dizkiete. «Gaur egungo euskara mintzatuari buruzko informazio zabala izango da, eta historian ere oinarrituko da, gure idazleek idatzi dituzten liburuik aipagarrienetako datuak denen eskura jarriz», azaldu zuen Goenagak.

Proiektuaren lehen atala den gramatika horrek, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren ikerketa proiektuetarako diru laguntza lortu du: 320.000 euro. EHUk 150.000 euro jarriko ditu, erakunde pribatuekin lortutako akordioen ondorioz 140.000 euro hitzartuta dauzkate dagoeneko, eta beste zenbait iturritatik 180.000 euro lortuko dituzte. Guztira, 790.000 euroko aurrekontua dute.

**HIZTEGIA EZ DA ARAU-EMAILEA.** Gramatikaren informazioa hiztegiarenarekin lotuta egongo da bi proiektuak osatzen doazen heinean.

Egungo Euskal Hiztegiak hainbat atal izango ditu. Egungo prosako –2000. urtetik hasita, bai liburu eta bai BERRIA egunkariko eta *Herria* aldizkariko– testuak bilduko ditu, erabilera arrunteko hitzak, hitz teknikoak, gramatika hitzak eta historiako informazioa.

Zati bat dagoeneko sarean dago, *f*, *g* eta *h* letrak. *F* letratik zergatik hasi diren argitu zuen Sarasolak: «Arrazoia praktikoa da, *f* letra ez da letra baino askoz ere laburragoa da, zailtasunak ikusi eta hobetzen joateko baliokodigu».

Hiztegia arau-emailea ez dela nabarmendu dute zuzendariek, hizkuntzaren joerak ikusaraztea dela helburua. Orain arte, 80.000 adibide bildu dituzte.